

## **IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ARAUZKEKO ORDENANTZA ALDATU AURRETIKO HERRI KONTSULTA**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta aldatu aurretik, aipatutako ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

### **Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.**

2017ko 231. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2017ko azaroaren 30ekoan, 103/2017 Foru Dekretua eman zen argitara, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena. Foru dekretu horrek kaleratu zen egunean bertan hartu zuen indarra.

Lehen batean, aldaketak jaso beharko du indarrean dagoen ordenantza aipatu den foru dekretu horretara egokitzea.

103/2017 Foru Dekretua Iruñerriko Mankomunitateak aplikatu beharrekoa da, baina ez Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateak, eta, horrenbestez, Foru Dekretuak euskararen erabilerari dagokionez ezartzen dituen herritarren eskubideak bermatzeko, Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan euskararen erabilera arautzen duen ordenantza aldatu beharko da, zeinak neurri handi batean jada jasotzen duen Foru Dekretuan arautzen dena. Zehazki, 2018rako Araudi Planean aurreikusi edo jasota dago jada aldaketa hori.

Ordenantzak ahalbidetuko du gai edo arlo honetako betebeharrak SCPSA sozietatera helaraztea, zerbitzu publiko bat ematen duen erakunde moduan, bai Mankomunitatearen kudeaketa propioaren bidez ematen dituen zerbitzuetarako (UZI

eta Hondakinak), bai Mankomunitateak agindutako zerbitzuetarako (HAZ, EHG, Erregistroa...) eta herritarrei eragiten dietenetarako.

Foru dekretu hau aplikatzeak eskatzen du egokitzeko barne prozesu bat hastea, Mankomunitateak berak arautuko duena eta Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateari eragingo diona.

#### **Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.**

Araua egokitu egin behar da Mankomunitatearen eta SCPSAren jarduketa esparrura.

#### **Araua aldatzearen helburuak.**

Ordenantza aldatzearen xedea da Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretura egokitzea, 103/2017 Foru Dekretura. Hartara, herritarren arreta bermatuko da, Euskararen 18/1986 Foru Legeak zehaztutako hiru eremuetako bakoitzeko helburuak aintzat hartuta –eremu euskalduna, mistoa eta ez euskalduna–, aipatutako foru dekretu horren 10. xedapen gehigarrian jasotzen den moduan.

#### **Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.**

Ordenantza bat egiteak berekin dakarren arauzko ahalmenaren bidez egin behar da tokiko erakundeek gai edo arlo hau arautzeko beharrezkoa den garapena; izan ere, asmoa, barneko harremanak ez ezik, herritarrekiko harremanak ere arautzea baita.